



*Guraso agurgarriak:*

*Erdi Aroko garai ilunak atzean utzi eta gure lagunak aro berri batean murgilduko dira. Zientzia eta aurkikuntza handien garaian! Berriro ere bidaia egin dute gu hemen utzita, eta ezetz jakin oraingo honetan nor eraman duten eurekin? Bada, galdetu zuen seme-alabei! Ondo asko dakite eta!*

*Oraingo honetan itsasoa eta euskaldunak izango ditugu ikasbide. Guk dakigun guztia irakatsi eta erakutsiko diegu, baina zuen seme-alabak ez dira horrekin konformatzen: gehiago jakin nahi dute. Horregatik, berriro ere zuen laguntza eskatzera gatoz.*

*"Boga-boga marinela" da jakin-min hori asetzen lagunduko digun unitatea. Bertan hainbat gai jorratuko ditugu: alearen arrantza, nabigatzaile handiak, piratak eta kortsariok, arrantza gaur egun, itsaso, ibai eta erreketako animaliak, eta baita itsasoarekin zerikusia duen mundu magikoa ere: ipuinak eta kondairak.*

*Hartara, badakizue, gai honi buruz daukaguen guztiari izena jarri eta bidai ezazue zuen seme-alabekin, denok eskertuko baitugu.*

*Benoa, denok zerbait gehiago ikasiko dugulakoan, agur esan beharko. Zoriontsu bizi eta laster arte!*

*Pox eta Urdintxo*